



# ERRONKA KOLEKTIBOA

Zoragarria bezain beharrakoa, eztabaidatua bezain babestua. Euskadik urteetan jakin izan du bere hezkuntza-sistema zaintzen eta babes-ten; izan ere, bere gizartearen ardatzetako baten modura hartu du, gorabehera politikoez at utzi du eta erakundeek behar bezala trata dezaten eskatu du. Aintzat har dezakegu Euskadik, gizarte gisa, hezkuntzaren arloko bere eginbeharra egindituela, eta hezkuntzak, bere emaitzen bidez, erantzun ego-kia eman diola Euskadiri.


Hermesek eskaintzen didan talaia honetatik, hezkuntzak herrialde gisa proposatzen dizkigun erronkei buruzko nire ikuspegia aztertu, hausnartu eta partekatu nahi dut; hezkuntza globalizatua, baina norberarenarena, gertuko, aldarrikatzen duena. Etengabe aldatzten ari den sistema horrek etengabeko analisia eta hausnarketa eskatzen du, berria den guztiak ez baitu zertan aurreko baino hobea izan, eta aurrez ezarritakoak ezin baitu bere nagusitasuna defendatu bere ukitu zaharra oinarri hartuta.

Pribilegiatura naiz. Lehen esan dudanez, hezkuntza etengabe aldatzten ari den elementua dela egia bada ere, egia da, halaber, zenbait unetan egoera batzuek iraultza txikiak —edo ez hain txikiak— bultzatza ditzaketela. Batzuetan, zenbait faktoreren baturak gai konplexuei eta ia beti gorabeheratsuei buruz gogoeta egiteko aukera ematen duen abagunea eragiten du. Sinetsita nago, orain, hezkuntza-esparruari iritsi zaiola txanda, datozan belaunaldien hezkuntzari. Aldaketa sakon baterako garaia iritsi da.

Abentura zirraragarri horretan adituekin, profesionalekin, hezkuntza-eragileekin eta gobernukideekin batera parte hartzeako aukera

izateak aparteko zentzua ematen dio Hezkuntza sailburu ardurari. Lehenik eta behin, ikuspegi eta lehentasun sorta zabala edukitzaren garrantzia nabarmendu nahi dut, batzeko eta aurrera egiteko ezinbesteko tresna den heinean. Baita eztabaidatzeko eta gogoetak partekatzeko, eta aurrean duguna ulertzeko ere.

Berrogei urtetik gora dira Euskadi Gernikako Estatutuaren eskuistik bidea egiten ari dela. Gure herriarentzat politikarik onuragarri-nak erabakitzeko aukerari esker, duela ez asko pentsaezina zen gizarte-hazkunde baten lekuko izan gara. Gu gaur garena gure gizartearen askotariko esparruetan izandako bilakaeraren emaitza da, hain zuzen ere. Sektore horietatik, hiruk osatu dute, batik bat, gure ongizate-gizartea: osasunaren arloak, gizarte-babeseko sareak eta hezkuntzak. Aspaldi eskualdatutako eta ustez osatutako eskumenetan, tamalez, irauten duten mugen gainetik, euskal administrazioek urte hauentan ahalik eta etekinik handiena ateratzen jakin izan dute herritarren mesedetan. Adierazi dudana



# JOKIN BILDARRATZ SORRON

EUSKO JAURLARITZAKO  
HEZKUNTZA SAILBURUA

herritar gisa dudan esperientzia pertsonalaren ondorioz berretsi ahal izateaz gain, zehatzagoa izan naiteke eta hezkuntzak izan duen ibilbidea hobeto ezagut dezaket.

Euskadik hezkuntza-sistema modernoa eta konprometitua du, prestakuntza pertsonal eta tekniko handia eskaintzen duena, eta herria gidatuko duten belau-naldiak berme osoz prestatzen dituena. Eta uste eta ezagutza osoz adierazten dut hori. Lehenik, irakasle gisa, ikastetxe bateko zuzendari gisa, aita gisa, irakasle baten bikotekide gisa eta ande-reño baten aita gisa... eta azken bi urteotan, nire egungo erantzukizunak ematen didan ikuspegitik eta informazioetik. Eta iruditzen zait hori nabarmendu beharra dugula, eta geure ikur bihurtu. Nolabait zuzenean inplikatzen gaituen hezkuntza-komunitate baten parte izateaz harro egon behar dugu. Kritiko eta zorrotz izan beharra dugu, baita emaitzekin eta beharrreko ebaluazioekin konformatigaitz ere, baina katastrofismo bidegabean eta merezi gabean erori gabe. Funtsezkoa da aurrera egitea eta hobetzea, baina horretarako ezinbesteko da gure errealtitatea zein den ezagutza. Euskadin gaur egun hezkuntza zer den azaltzen duten adierazle batzuk emango ditut ondoren, betiere zenbait datu adierazgarri ematen dizkiguten gertaera objektibo batzuk egiazatzeko helburu bakarrarekin:

Euskadin eskola-uzte goiztiarraren tasa (% 4,8) Europar Batasuneko batezbestekoaren oso azpitik dago (% 10), eta Espainiakoaren oso

azpitik ere bai (% 13); ikasten edo lan egiten ez dutenen tasa ere oso azpitik dago; 2 urtekoen eskolatze-tasa % 94koa da, eta

Estatuan aldi % 63koa; 16-17 urte artekoen eskolatze-tasari erreparatuta, Suediak soiliq gaintzen du gure tasa; goi-mailako ikasketak dituen biztanleriaren ehunekoa ere Europako handienetako bat da; eta Nafarroarekin batera DBH soiliq duten ikasleen ehunekorik txikiesten dugu Estatuan; English Proficiency azterketaren arabera, Euskadi da ingeles-maila handiena duen autonomia-erkidegoa (arlo horretan hobetzeko tarte handia den arren). Azkenik, PISA azterketari dagokionez, azken ebaluazioak posizio ona ematen digu, zientzietan zein matematikan.

Datu horiek, beste adierazle batzuekin batera, argi azaltzen dute gure Lanbide Heziketa zergatik aintzatesten den nazioartean, gure unibertsitate publikoa zergatik sartzen den munduko 400 onenen artean eta goi-mailako prestakuntza duten ikasleen enplegagarritasun-ehunekoa zergatik den oso handia. Jasotzen duten hasierako prestakuntzari esker, gure ikasleek helduaroari berme osoz ekiteko beharrezkoak diren tresnak eskuratzeko dituzte. Helburu hori lortu behar dugu, eta helburu horri begira arraun egin behar dugu, estropadetan bezala: atzera begiratuz, egindako bidea baloratuz, baina ondo definitutako ibilbidea eginez, eta elkarrekin koordinatuta arraunean.

Etorkizunaz hitz egin dezagun, bada.

Ez gara zerotik abiatzen, baina garrantzizkoa eta beharrezko da gogoeta egin ahal izatea eta mihise zuri baten aurrean hausnarketa partekatzea. Une sozial eta politiko honetan amets egin dezakegu gure hezkuntza-sistema egunera-tzeo eta modernizatzeko aukera emango digun eraldaketa-rekin; era berean, epe labur, ertain eta luzera aurreikus daitezkeen premiak planifika ditzakegu eta aurrea hartu diezaiekegu. Egungo Euskal Eskola Publikoaren Legeak indarrean eman dituen ia hogeita hamar urteotan, eztabaideetatik, adostasun eta desados-tasunetatik haratago, euskal gizarteak ulertu du garrantzitsua dela araudi bat finkatzea eta etengabeko araudi-aldaaketak saihestea, Estatuan, 40 urte luze hauetan gertatu denaz oso bestela.

Orain, ego-kiera paregabeko leihoa ireki zaigu aurrean. Hezkuntza edozein gizarte aurreraturen elementu nagusi izanik, alderdi politikoak erakusten ari dira badakitela egoerak agintzen duen mailan jarduten, eta hori ere baloratu beharreko da. Prozesu parte-hartzaile luze baten ondorioz, eta zuzendaritza-taldeen eta irakasleen implikazioarekin, familien eta gizarte-eragileen ekarpenarekin eta Euskaditik kanpoko profesionalen lankidetzarekin, Eusko Legebiltzarraren gehiengoak etorkizuneko Hezkuntza Lege baten oinarriak adostu ditu, hau da, 2050. urterako arte lagun egingo digun testu artikulatu berri baten funtsezko printzipioak adostu ditu, gure hezkuntza-sistemaren beharrei eta eskakizunei erantzun diezaien. Akordio hori, berez, gertaera garrantzitsua da, ezohikoa. Oraingo oinarrien dokumentu bat da, bai; baina funtsezkoa, hezkuntzaren arloko zeharkako akordio zabal bat lortzea utopia izan ez dadin. Oraintxe da beraz, unea, eta arestian aditzera eman dudanez, pribilegio bat da niretzat hain prozesu zoragarrian parte hartu ahal izatea.

Ez da nire asmoa idazki honen bidez Legebiltzarraren akordioaren edukian sakontzea, baina oso zaila egiten zait gure hezkuntzaren erronkei buruz hausnartzea, testu horretan jada jaso diren elementuen aipamen zuzena egina gabe. Beste behin ere, nabarmendu nahi dut bertan aipatzen diren edukiak hezkuntza-komunitate osoaren arteko elkarriketako eta hausnarketako milaka orduren emaitza direla, milaka pertsonari eztabaидatzen entzutearen emaitza, betiere lehentasunak ordenatzeari eta desadostasunak erlatabiztzeari begira. Horrenbestez, hezkuntza-akordioak eta horren ondorengo Hezkuntza Lege Proiektuak zehaztu eta adostu diren giltzarri horiek guztiak biltzen dituzte.

Zehazki, honela dio: *"Euskal hezkuntzari zorroztasunez begiratzeko garaia da. Asko egin da, baina, oraindik, asko geratzen da egiteko. Egungo eta etorkizuneko erronkei erantzuteak eskatzen du: (I) berrikuntzaren kulturaz jabetzea; (II) hezkuntza-prozesuari aplikatzekoak zaizkion ekarpentzientifikoak aintzat hartza; (III) ikasle ahaldunduak ikasuntzaren objektu aktibo gisa aintzat hartza, baita ikasleen gidari eta laguntzaile diren familiak eta irakasleak ere; (IV) hezkuntza formaleko eta informaleko eskola-antolakuntza eraikitza, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurune soziokulturalarekin eta instituzionalarekin integrakzioan kudeatuko diren ikastetxe ahaldunduak izango dituena; (V) gobernantza-*


*-eredu erantzukidea, kolaboratiboa, desentralizatua eta egituratua ezartzea udalerriaren, lurralte historikoaren eta autonomia-erkidegoaren mailan; eta (VI) hezkuntza-sistema inklusiboa bermatzea."*

Horiek dira erronka nagusiak, eta erronka horietako bakoitzak garatu beharreko askotariko elementuak ditu, eta printzipio eta ardatz argiak eta ondo definituak:

- Ikasleek gure hezkuntza-sisteman erdigunean egon behar dute; pertsona konprometituak, kritikoak eta solidarioak hezi behar ditugu.
- Ikasleen erreferente diren irakasleek beharrezko prestakuntza izan beharko dute eta gizartearen aitzortza.
- Sistema desentralizatu bati laguntzea, eta, horretarako, zuzendaritza-taldeen lidergo sendoen aldeko apustua egitea, hezkuntza-emaitza hobea eta gizarte-kohesio hobea loridaitezen.
- Euskara ardatz izango duen sistema eleanitzuna bultzatzea, baita tokikoan oinarritutako nazioarteko ikuspegia ere.

Edonola ere, printzipio horietatik haratago, eta gure hezkuntza-sistemarentzat funtsezkoztat jotzen ditudan alderdiak aztertzeari begira, lehenik eta behin gure hezkuntza-sistema bera definituko dut. Begi-bista koa dirudien arren, beste alderdi batzuk jorratzen hasi aurretik, funtsezko da jokalekuaren definizioa bera.

Titulartasun publikoko ikastetxeen eta itunpeko ikastetxe



pribatuen arteko osagarritasuna da, hain zuzen ere, Euskadiko hezkuntzaren ezaugarririk agerikoena bat. Aspalditik bide-lagun dugun errealtitatea da, egungo garai demokratiko hau baino askoz lehenagotik, nola nahi ere. Urte hauetan guztietan, familiek zenbait aukeraren aldeko apustua egin ahal izan dute, eta aukeratu ahal izatea da, hain zuzen ere, gure ezaugarietako bat. Gaur egun, hezkuntza-sistemaren ardatz diren eta izaten jarraituko duten ikastetxe publikoen sareari esker, ikastetxe publikoek zein itunpekoek kalitatezko Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa eskaintzen diote gizarteari. Euskal Zerbitzua, funts publikoen bidez sustatzen baita, hau da, gure erkidegoko ikasle guztien eskolatzea eta hezkuntza bermatzen duten funtsen bidez. Badakit kontzeptu hau berria dela gure hezkuntza-sistema-rentzat, nahiz eta beste leku eta esparru batzuetan jada aintzat hartzen den. Azken batean, herri-tarrek hezkuntzaren arloan dituzten eskakizunei eta premiei erantzungsdiengos dien ekosistema bakar batez ari gara. Identifikazio berri horrek, haistik, azturak, joerak edo ohiturek egokitzea eskatzen du.

Harro sentiarazten gaituen ekitateak edo aukera-berdintasunak egungo sistemaren alderdi batzuk berraztertea eskatzen du. Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoak gu guztiok interpellatzen gaitu, ikastetxeak, hezkuntzaren arloko patronalak, beste erakunde batzuk eta familiak. Azken urteotan gizarte gisa — planeta global baten parte garen

aldetik — izan ditugun aldaketek, nabarmen aldatu dute gure ikastetxeetako errealtitatea. XXI. mendean hasieratik, gure herri, hiri eta auzoek hainbat lekutatik etorritako familia ugari hartu dituzte; haien seme-alabek beren kultura eta ohiturekin aberastu dituzte gure ikastetxeak, eta ikasle autoktonoek izateko eta jarduteko beste modu batzuk ezagutu dituzte. Nolanahi ere, zenbait faktoreren ondorioz, ikastetxeen irakaskuntza-erritmoa ez da berbera izan — ia beti hezkuntza-sistemaz kanpoko faktoreak izan dira, hala nola hirigintza-plangintzak edo zenbait komunitatek beren sustraietako lotutako eskolatzea biltzeko duten nahiak—. Horri gehitu beharko litzai oke itunpeko ikastetxeek —ikastetxe horietako ikasleek Administrazioak finantzatutako heziketa jasotzen dute — kuota batzuk kobratzen dituztela eta kuota horiek, kasurik onenean, arauaren arloko zalantza sortzen dutela, baliabide ekonomiko gutxiago dituzten familientzat oztopo izateaz gain, jakina. Errealitatea hori izanik ere, agerikoa da egoera horrek aldaketa esanguratsua eskatzen duela; eta aldaketa horri ekin diogu.

Gure hezkuntza-sistema, nahitaez, askoz ere solidarioagoa izango da ikasle zaugarrienen eskolatzeari dagokionez: atzerriko ikasleak, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak, indize sozioekonomiko eta kultural txikia duten familiak neska-mutilak, eta abar. Eta horrexek izan behar du Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren oinarri nagusia: erronka berberei aurre egiten dien, zailtasunak partekatzen dituen eta soluzioetan parte hartzen duen taldea, ikasleei eskaintzen dien prestakuntzaz harro dagoen taldea. Ez dut ikastetxe berekoirik ulertzen, ez dut bere lau hormen arteko interesari soiliik begiratzen dion ikastetxerik ulertzen.

Gure gizartea gero eta anitzagoa da, eta ikastetxeek horren isla izan behar dute. Ikasle bakoitzak bere potentziala ahalik eta gehien balia dezan lortu behar dugu; frustrazioari aurre egiteko eta finkatutako helburuak lortzea errazteko aukera emango duen gero eta hezkuntza individualizatu baten alde egin behar dugu. Orain arte bezala — eta hau ere Euskadiko hezkuntzaren ezaugari bereizgarria da —, ezinbestekoa izango da ikasteko zailtasun handia duten ikasleei laguntzen jarraitzea, baina baita gaitasun handiagoa duten eta beste mota bateko laguntza behar duten neska-mutilei laguntzea ere, aurrekoak bezain beharrakoa baita. Euskadin eskola uzten dutenen tasa hain txikia izateak oso harro

s e n t i a r a z i


behar gaitu, horrek era-kusten baitu gure hezkuntza-sistemaren eta, hartara, gure gizar-tearen azken helburua ez dela argazkian ondo ateratzeaz arduratzea, baizik eta une oro ikasle guztien hezkuntzaren aldeko apustu irmoa egitea. Ez litzaidake gustatuko nazioarteko ebaluazioetan emaitza bikainak lortzen dituzten Asiako zenbait herrialderen antza izatea; zehazki, ikasle gehienak hezkuntza-sistematik baztertu eta eli-tearekin bakarrik geratzen diren herrialdeen antza izatea. Zorionez, nazioarteko panoramak bestelako adibide eta helburu partekatuak ere eskaintzen dizkigu, eta horiek harti nahi ditugu euskarri.

Joan den martxoan Europan izen handiena duten bi herrialdeetako hezkuntza-sistemak ezagutzeko aukera izan nuen: Estonia-ko eta Finlandiakoa. Finlandiaren kasuan, gainera, Li Andersson hezkuntza-ministroak berak azaldu zizkidan hango hezkuntza-sistemaren ezaugarri nagusiak, eta herrialdeko zenbait ikastetxetara egindako bisiteten lagun izan nuen. Aitortu beharra daukat harrotasuna izan zela bisita guztietan hauteman nuen lehenengo gauza. Pertenentziaren harrotasuna eta egunero egiten duten lanaren gaineko harrotasuna. Andersson-ek sentimendu partekatu horren garrantzia nabarmendu zuen, baina aditzera eman zidan mende-erdiko lan baten emaitza izan dela; berrogeita hamar urte horietan gizarte osoak, alderdi politikoek, irakasleek eta familiek bat eginik lan egin dutela, gaur egun ikusten diren helburuak lortze aldera. Mende erdi geroago. Gogoeta hori baliagarria zait nabarmen-tzko sustatu nahi dugun edozein aldaketak gure gizartea osatzen duten eragile guztien komplizitatea behar duela, eta ez duela berehalako itzulerarik izango, zoritzarrez gaur egun bizitzako ia esparru guztietan eskatzen dugun moduan. Hezkuntzak apustu jarraitua eskatzen du, lan pedagogiko irmoa eta sakona, irakasleen etengabeko prestakuntza... eta pazientzia. Hezkuntzaren arloko adituek uste dute edozein aldaketa pedago-giko edo metodologiko behar bezala baloratuko bada, 10 urte inguruko itxaronaldia eta analisia behar direla. Zorionez, egunero gure ikastetxeetan egiten den lan bikainaz gain, beste herrialde batzuetako esperientzia eta ezagutzek ere aberastu egiten gaituzte eta behar bezala orientatu.

Izatez, gure hezkuntzaren nazioartekotzea da gure etengabeko aurrerapenaren beste faktore erabakigarrietako bat. Zenbait gobernuren-kin elkarlanean

dihardugun bezalaxe, ikastetxeek ere elkarlanean dihardute askotariko proiektu pedagogikoetan. Unibertsitatearen eta Lanbide Heziketaren arloan ohikoagoa den arren, urratsak egiten ari dira eskola-esparruan ere bai. Ikastetxe askok jada beste errealitye batzuekin koordinatuta lan egiten dute, batik bat Europa mailan. Teknologiak oso lagun-garriak zaizkigu horretarako; haatik, nire iritziz, gehiago da erronka kontzeptuala. Tokikotik eta hezkuntzaren eta kulturaren arloko oinarri sendoetatik abiatuta, funtsezko da gure ikasleek ohiutu beharko duten beste esparru batetara irekitzea. Gure ikasleek izango duten gizarte- eta lan-errealityeara, beraz, aurreko belaunaldiok izan genuen errealityaren oso bestelakoa izango da. Gizarte globalizatu batean bizi gara, horrek dakartzan onurrekin eta eragin ditzakeen arazoekin. Egokitu gaitezen, hortaz, itxura guztien arabera geratzeko iritsi den errealitye batera.

Ikupegi orokorrarekin izan edo begirada propioago batekin izan, agerikoa da gure hezkuntzaren bilakaera gure irakasleen trebakuntzaren eta prestakuntzaren mende dagoela, hein handi batean bederen. Ezinezkoa da hezkuntzan aurrera egitea, irakasleek errealitye eta eskakizun berrietara egokitzeo behar dituzten tresnak ere aintzat hartzen ez baditugu. Gure hezkuntza-sisteman sartzen diren irakasle berrieik beharrezko dituzten ezagutzak izateaz gain, funtsezkoa izango da irakasleen artean etengabeko prestakuntzaren kultura sustatzea, urteekin gertatuko



diren aldaketei erantzun egokia eman diezaiegun. Behar horrek oinarrizko premisa honetan du heldulekua: administrazioak, hau da, Hezkuntza Sailak zuzkituko ditu hezkuntzaren arloko profesionalek behar dituzten baliabideak. Eta ezin izango dio, inola ere, erantzukizun horri iskin egin. Baino irakasleek ere bere egin beharko dute etengabeko prestakuntza hori, beren zergin profesionalaren berezko elementua den heinean. Bi premisa horiek uztartzeak soilik ekarriko digu erantzun egokia emateko aukera. Hori hala izanik, eta lortu nahi dugun hezkuntza erdiestea aldera, bistan da premisa gutxi egongo direla etengabeko prestakuntzaren premisa bezain garrantzitsuak.

Elementu hau bestelako prestakuntza batekin lotuko dut, orain- txe aipatu dudanarekin harreman estuan, aurrekoa bezala erabakigarria baita hau ere hezkuntzari bultzada emateko estrategia honetan. Zuzendaritza-taldeen profesionalizazioari esker, hobeto kudeatutako ikastetxeak izango ditugu, autonomoagoak eta beren ingurune geografikoari lotuagoak. Irakasleek bezalaxe, ikastetxeko zuzendariaaren kar- guak ere gizarte-aitorta merezi du, eta hori ez da beti hala iza- ten. Ikastetxe bateko zuzendaria- ren lideroak hein handi batean eragin dezake ikastetxe horren hezkuntza-projektua zuzena iza- tea, edo ez. Ikastetxea ahalik eta modurik onenean kudeatzeko berariazko prestakuntzan lagun- tza emateaz gain —bai baliabide materialei dagokienez, bai giza taldearen kudeaketari dagokio-

nez—, lortu behar dugu zuzendariaaren hie- rarkiak eta lideroak zuzenean laguntza orokorrean finkatuta ditu- gun lorpenak erdiesten, baita ikaste- txeak berariaz zehaztu eta finkatutako lorpe- nak erdiesten ere. Hezkuntza-sistema orokor batean, ikastetxe bakoitza errealtitate bat da, era- bakimenez eta ezagutzaz kudeatu behar den errealtitate bat. Faktore horien artean daude ingurunea, ikastetxearen ibilbidea, ikasleen profila, irakasleen mugi- kortasuna, familien implikazio handiagoa ala txikiagoa, edo ikastetxearen kultura- eta hizkuntza-errealtitatea.

Azken elementu edo adierazle horrek, hau da, ikastetxearen errealtitate soziolinguistikoak, protagonismo handiagoa hartu behar du datozen urteetan. Ardatza euskara izaten jarraitzen duen sistema batean, gure auzoetako eta udalerrietako errealtitate desberdinek malgutasun pedagogikoa eskatuko dute, gizarte gisa ezarri ditugun helburuak lor daitezzen. Jakina, ez da gauza bera Bizkaiko Meatzaldeko herri batean ikastea edo Urdai- baiko herri batean ikastea. Euskararen ezagutzak eta erabilera azken hamarkada hauetan nabarmen aurrera egin badu ere —hein handi batean hezkuntza-sistemari esker—, egia da euskararen erabilera ez dela guk nahiko genukeen adinakoa gure geografiako eskualde batzuetan. Errealitate bakoitza modu individualizatuan aztertu behar da, eta ikuspuntu pedagogikotik behar duenaren araberako erantzuna eman behar zaio. Ikerketa eta proiekzioen arabera, euskarak bere indartze motel baina etengabeari eutsiko dio, baina, horretarako, euskararen ezagutza eta erabilera sus- statuko duten politikak aktibatzen jarraitu beharko dugu. Autonomia horrek ez du esanahi, ordea, errealtitate desberdinekin etsiko dugunik, erabat aurkakoa baizik. Helburua da Euskadiko ikasle guztiak B2 maila, gutxienez, lortzea bi hizkuntza ofizialetan: ikastetxe bakoitzaren irizpidearen eta kudeaketa-autonomia- ren arabera erabakiko da maila hori nola lortu, zein erritmo- tan eta zein prestakuntza-prozesurekin. Betera, Hezkun- tza Sailaren gainbegiradarekin eta, gure gizartea osatzen duten errealtitate desberdinaren aurrean, ikastetxeetako bakoitzak duen egiteko moduarekin. Alabaina, bidaia hori ezin dugu bakarrik egin; ez dugu bakarrik egin behar.

Gutxi gorabeherako kalkulu bat egiten badugu, Lehen Hezkuntzako edo Derrigo- rezko Bigarren Hezkuntzako ko ikasle batek bere bizitzaren %15 inguru pasatzen du ikastetxean. Por- tzentaje hori, ziur

asko, pentsa genezakeena baino txikiagoa da. Euskararen kasuan, eta euskara gutxiago hitz egiten den eremuetan, horrek esan nahi du ikasleek denborarik handiena euskaratik urrun ematen dutela, euskararekin duten harremana eskoletara mugatzen baita. Eta hortxe dute udalek ezinbesteko zeregina. Modu aktiboagoan eta irmoagoan parte hartzeko aukera izango dute udalek hezkuntza-esparruan, euskarari dagokionez ez ezik, ikastetxeek sustatzen dituzten gainerako hezkuntza-projektuei dagokienez ere bai. Eskumenak Eusko Jauritzarenaren izaten jarraituko duen arren, udalen parte-hartze handiagoa zuzenean izango da onuragarria komunitate osoarentzat: ikasleentzat, familientzat, hezkuntza-zerbitzuaren kalitatearentzat eta bizikidetzarentzat. Hurbilen dagoen administrazioak zuzenean inplikatutako eragile aktibo bihurtu beharko du, besteak beste, matrikulazio-prozesuan, ikastetxearekiko nahiz Hezkuntza Sailarekiko koordinazioan edo ikastetxeek bultzatzen dituzten jarduera eta proiekturekin lotzen diren eskolaz kanpoko jardueren diseinuan. Azken batean, funtsezko pieza izango da hezkuntza-komunitate zabalagoa eta kohesionatuagoa bultzatzeko, ikasleen eta familien zuzeneko onurarako.

Izan ere, ez dago gure ikasleak baino ezer garrantzitsuagorik. Ikasleak prozesu osoaren erdigunean jartzen ditugunean, hezkuntza-sistema osoak gure gazteria abiapuntu eta jomuga dituelako uste osoz ari gara. Proiektu handi honetan parte hartzen duten hezkuntza-eragileen lehentasunak bigarren mailan daude. Administrazioak eta ikastetxeetako irakasle eta profesionalek egunero egiten dugu lan berme guziak dituen hezkuntza ahalbidetzearen alde,

ziur baikaude gure ikasleek, oinarritzko etapa amaitzean, beren prestakuntza berme osoz jarraitzeko behar dituzten jakintzak eta trebetasunak eskuratuko dituztela. Pertsona konprometituak, kritikoak eta solidarioak prestatu nahi ditugu, eta horretan jartzen dugu gure ahalegin osoa.

Ziur nago, guztion artean, eta hezkuntza, politika eta gizartearen arloko eragileen arteko beharrezko konplizitatearekin, gai izango garela hezkuntza-sistema eguneratu eta indartua adosteko eta blindatzeko, etorkizuneko gorabeheren gainetik. Gure gizarteari egin diezaiokegun ekarpenik handiena izango litzateke. Euskadiak soberan erakutsi du kalitateko hezkuntza ekitatiboaren eta solidarioaren aldeko konpromisoa. Orain, hurrengo belaunaldietzako oinarriak eraikitzeko unea da, eta ezin diegu hutsik egin.

Inolako zalantzak gabe, hezkuntza herri-erronka da, eta hori dugu helburu.

# UN RETO COLECTIVO

JOKIN BILDARRATZ SORRON. CONSEJERO DE EDUCACIÓN DEL GOBIERNO VASCO

Tan apasionante como necesaria, tan debatida como protegida. Euskadi ha sabido mimar y preservar su sistema educativo durante años, la ha considerado uno de los principales pilares de su sociedad, la ha mantenido al margen de vaivenes políticos y ha exigido que fuera debidamente tratada por las instituciones. Podemos considerar que, como sociedad, Euskadi ha hecho sus deberes en relación a la educación, y que la educación ha respondido a Euskadi con sus frutos.

Me asomo a este espacio que me ofrece Hermes con la intención de analizar, reflexionar y compartir mi visión acerca de los retos que, como país, nos propone la educación; una educación globalizada pero reivindicativa de lo propio. Un sistema en permanente cambio que exige un constante análisis y reflexión, porque no todo lo nuevo es mejor que lo anterior, ni lo previamente establecido puede defender su hegemonía amparándose en su toque añejo.


Me considero un privilegiado. Aunque es cierto que, tal y como he señalado previamente, la educación es un elemento en constante cambio, no es menos cierto que hay momentos en los que algunas circunstancias pueden impulsar pequeñas —o no tan pequeñas— revoluciones. Hay ocasiones en las que la suma de varios factores provoca un alineamiento que permite reflexionar sobre asuntos complejos y casi siempre discrepantes. Pues bien, tengo el convencimiento de que este momento le ha llegado el turno al ámbito educativo, a la educación de las próximas generaciones. Ha llegado el momento de un cambio profundo.

Poder participar en esta apasionante aventura, junto con una larga lista de expertos, profesionales, agentes educativos y compañeros de gobierno, le otorga un sentido excepcional al cargo de Consejero de Educación. Pongo un primer acento en el grupo, en la importancia de disponer de una amalgama de visiones y prioridades, como herramienta indispensable para sumar y avanzar. Para discrepar y compartir reflexiones, para entender al de enfrente.

Hace ya más de cuarenta años que Euskadi camina con la inestimable compañía del Estatuto de Gernika. La posibilidad de decidir las políticas más beneficiosas para nuestro país nos ha posibilitado ser testigos de un crecimiento social difícilmente imaginable hace no tanto tiempo. La evolución experimentada en los diferentes ámbitos de nuestra sociedad nos ha convertido en lo que hoy en día somos. De esos sectores, hay tres que han configurado fundamentalmente la base de nuestra

sociedad del bienestar: el ámbito sanitario, la red de protección social y la educación. Aún con las limitaciones que lamentablemente perduran en unas competencias supuestamente plenas y ya atribuidas mucho tiempo atrás, en estos años las administraciones vascas han sabido sacarle el máximo provecho en beneficio directo de la ciudadanía. Más allá de poder corroborar esto que señalo a través de mi experiencia personal como ciudadano, sí puedo ser más explícito y disponer de un mayor conocimiento en relación al recorrido que ha experimentado la educación.

Euskadi dispone de un sistema educativo moderno, comprometido, que ofrece un alto nivel de formación personal y técnica, y que prepara con garantías a las generaciones que liderarán el país. Lo digo con pleno convencimiento y conocimiento. Primero como profesor, director de un centro escolar, como padre, como pareja de profesora y madre de andereño... y desde hace más de dos años, desde la visión e información que me otorga mi actual responsabilidad. Y creo que es importante que destaquemos este hecho y que hagamos bandera de ello. Que nos sintamos orgullosos y orgullosas de formar parte de una comunidad educativa que, de una manera o de otra, nos implica directamente. Es necesario ser crítico, exigente, incluso inconformista con los resultados y las necesarias evaluaciones, pero sin caer en el injusto e inmerecido catastrofismo. Es fundamental que



avancemos, que mejoremos, pero para ello es vital que conozcamos realmente cuál es nuestra realidad. Con el único objetivo de constatar unos hechos objetivos y que nos arrojan una serie de datos significativos, aporto a continuación algunos de los indicadores de lo que hoy en día es la educación en Euskadi:

Euskadi tiene una tasa de abandono temprano (4,8%) muy por debajo de la media de la UE (10%) y de España (13%); tasa de NiNi-s muy por debajo del resto; tasa de escolarización a los 2 años del 94% frente al 63% del Estado; en la tasa de escolarización entre los 16-17 años tan solo nos supera Suecia; porcentaje de la población con estudios superiores de los más altos de Europa, y junto con Navarra el menor porcentaje en el Estado con alumnado que tan solo dispone de la ESO; según el estudio EF English Proficiency, Euskadi es la CCAA con mejor nivel de inglés (aunque el margen de mejora es notable). Y en relación a PISA, la última evaluación nos otorga una buena posición tanto en ciencias como en matemáticas.

Estos datos son tan solo algunos de los indicadores que explican por qué nuestra FP es reconocida a nivel internacional, que nuestra universidad pública se encuentre entre las mejores 400 del mundo y que el porcentaje de empleabilidad del alumnado con formación superior sea muy elevado. Nuestro alumnado recibe una formación inicial que les dota de las herramientas necesarias para poder liderar su etapa adulta con garantías. Ese es el objetivo que debemos perseguir y que nos debe

obligar a remar como en las traineras: mirando atrás, valorando el camino recorrido, pero avanzando con la ruta bien definida, y remando coordinadamente.


Hablemos, pues, del futuro.

No partimos de cero, pero es importante y necesario poder reflexionar y compartir frente a un lienzo en blanco. El momento social y también político nos está permitiendo soñar con una transformación que permita actualizar y modernizar nuestro sistema educativo, y a su vez planificar y adelantarnos a las necesidades que a corto, medio y largo plazo podamos prever. En los casi treinta años de vigencia de la actual Ley de la Escuela Pública Vasca, más allá de las controversias y desencuentros que han podido surgir, la sociedad vasca ha entendido la importancia de consolidar una normativa y evitar permanentes cambios reglamentarios, a imagen y semejanza de lo que viene ocurriendo en el estado.

Ahora, nos encontramos inmersos en una ventana de oportunidad. Siendo la educación un elemento nuclear de cualquier sociedad avanza, la clase política está demostrando una altura de miras que merece ser valorada. Como resultado de un largo proceso participativo —con la implicación directa de equipos directivos, profesorado, aportación de familias y de agentes sociales o la colaboración de profesionales de fuera de Euskadi—, la gran mayoría del Parlamento Vasco logró acordar la base de una futura Ley de Educación, los principios fundamentales de un nuevo texto articulado que nos acompañará hasta 2050 y que dará respuesta a las necesidades y exigencias de nuestro sistema educativo. Ese acuerdo ya es de por sí un hito, por inusual. De momento es un documento de bases, sí, pero vital si aspiramos a lograr que un acuerdo trasversal y amplio en el ámbito educativo deje de ser una utopía. Ahora es pues el momento, y como señalaba con anterioridad, me siento un privilegiado por poder participar en este proceso tan apasionante.

No persigo con este escrito ahondar en el contenido del acuerdo parlamentario, pero me resulta muy complicado reflexionar sobre los retos de nuestra educación sin hacer una mención directa a los elementos que ya se han recogido en el citado texto. Subrayo, una vez más, que los contenidos allí citados son fruto de miles de horas de diálogo y reflexión entre toda la comunidad educativa, son el resultado de escuchar a miles de personas debatir y discutir entre sí, ordenando las prioridades y relativizando los desencuentros. Por tanto, el acuerdo educativo y el posterior Proyecto de Ley de Educación recogen todas las claves identificadas y consensuadas.

En concreto, dice así: “Es el momento de mirar con rigor a la educación vasca. Es



mucho lo que se ha hecho, pero es también mucho lo que queda por hacer.

La respuesta a los retos actuales y futuros exige: (I) tomar conciencia de la cultura de la innovación; (II) considerar las aportaciones científicas aplicables al proceso educativo; (III) visionar un alumnado empoderado como sujeto activo del aprendizaje, así como a las familias y al profesorado que guían y acompañan al alumnado; (IV) construir una organización escolar de educación formal y no formal con centros empoderados que gestionen en interacción con el entorno sociocultural e institucional vasco; (V) implantar un nuevo modelo de gobernanza, corresposable, colaborativo, descentralizado y estructurado a nivel municipal, de territorio histórico y autonómico; y (VI) garantizar un sistema educativo inclusivo.”

Esos son los principales retos, cada uno de ellos con múltiples elementos a desarrollar, y con unos principios y ejes claros y bien definidos:


- El alumnado debe estar en el centro de nuestro sistema educativo; formar a personas comprometidas, críticas y solidarias
- El profesorado, referente del alumnado debe contar con la formación necesaria y con el reconocimiento de la sociedad
- Apoyo a un sistema descentralizado, con la apuesta en favor de sólidos liderazgos de equipos directivos, para lograr mejores resultados educativos y una mejor cohesión social
- Impulso a un sistema plurilingüe, con el euskera como eje, y una visión internacional desde lo local

Pero más allá de estos principios, y puestos a analizar aquellos aspectos que considero vitales para nuestro sistema educativo, voy a comenzar definiendo precisamente nuestro sistema educativo. Aunque pueda parecer una obviedad, la propia definición del terreno de juego en el que nos moveremos resulta fundamental, antes de abordar otras consideraciones.

Una de las características más evidentes de la educación en Euskadi la encontramos, precisamente, en la complementariedad existente entre centros de titularidad pública y centros privado-concertados. Es una realidad que nos acompaña desde hace mucho tiempo, desde luego bastante antes del actual periodo democrático. En todos estos años, las familias han podido apostar por diferentes posibilidades, y ese hecho de poder elegir es también una de nuestras marcas. Hoy en día, y con una red de centros públicos que son y seguirán siendo el eje del sistema educativo, nuestra realidad nos muestra una

foto en la que tanto centros públicos como concertados ofrecen a la sociedad un Servicio Público Vasco de Educación de calidad. Un Servicio Vasco en tanto en cuanto se impulsa con fondos públicos, fondos que garantizan la escolarización y educación de todo el alumnado de nuestro país. Sé que este concepto es nuevo para el nuestro sistema educativo, aunque ya se recoge en otros lugares y en otros ámbitos. Hablamos, en definitiva, de un único ecosistema que responda ante las exigencias y necesidades de la ciudadanía en el ámbito educativo. Esta nueva identificación exige, no obstante, ajustar hábitos, tendencias y costumbres.

La equidad, la igualdad de oportunidades de la que con orgullo presumimos, exige que repensemmos algunos aspectos del actual sistema. El citado Servicio Público Vasco de Educación nos interpela a todos y todas, a centros escolares, a patronales educativas, a otras instituciones y también a las familias. Los cambios que hemos experimentado como sociedad en los últimos años —como parte de un planeta global—, ha modificado de un modo importante la realidad que se vivía en nuestros centros. Desde comienzos del siglo XXI, nuestros pueblos, ciudades y barrio han acogido a un número importante de familias provenientes de diferentes lugares; sus hijos e hijas han enriquecido nuestros centros escolares con sus culturas y costumbres, el alumnado autóctono ha conocido otras maneras de ser y de actuar. No obstante, varios factores —casi siempre exógenos al propio sistema educativo, como pueden ser la




planificación urbanística o el deseo de algunas comunidades a buscar una escolarización vinculada a sus orígenes—, ha ocasionado que el ritmo formativo de los centros escolares no fuera el mismo. A eso habría que sumar el hecho de que los centros concertados —cuyo alumnado recibe una formación ya financiada por la administración—, cobraran unas cuotas que, en el mejor de los casos, y al margen de que supone una barrera para las familias con menores recursos económicos, genera una evidente duda normativa. Siendo esta la realidad, parece obvio que la situación exigía un cambio significativo, que ya hemos comenzado a acometer.

Nuestro Sistema Educativo será, necesariamente, mucho más solidario en lo concerniente a la escolarización del alumnado más vulnerable; alumnado de origen extranjero, estudiantes con dificultades de aprendizaje, chicos y chicas provenientes de familias con un índice socioeconómico y cultural bajo, etc. Y este debe ser el fundamento principal del Servicio Público Vasco de Educación: un equipo que afronta los mismos retos, comparte las dificultades, participa en las soluciones y se enorgullece de la formación que ofrece al alumnado. No concibo centros egoístas, que miran solamente al interés que guarda bajo sus cuatro paredes.

Nuestra sociedad es cada vez más plural, y los centros escolares deben ser un reflejo de ello. Debemos lograr que cada uno de nuestros estudiantes aproveche al máximo su potencial; apostando por una educación cada vez más individualizada que permita hacer

frente a la frustración y facilite la obtención de los objetivos marcados. Como hasta ahora —y esta también es una seña de identidad de la educación de Euskadi—, resultará vital seguir apoyando a esos estudiantes con mayores dificultades en el aprendizaje, pero también a los chicos y chicas con una capacidad mayor que requieren de una ayuda diferente, pero igualmente necesaria. El hecho de que Euskadi tenga una tasa de abandono tan baja nos debe hacer sentirnos orgullosos y orgullosas, porque eso demuestra que el objetivo final de nuestro sistema educativo, y por ende de nuestra sociedad, no es la de preocuparse de salir bien en la foto, sino la de apostar firmemente por la educación de todo su alumnado en todo momento. No me gustaría parecerme a algunos países asiáticos que obtienen excelentes resultados en evaluaciones internacionales a cambio de desterrar a la mayoría de su alumnado del sistema educativo a las primeras de cambio, y quedarse tan solo con la élite. Por suerte, el panorama internacional nos ofrece también otra serie de ejemplos y objetivos compartidos en los que nos queremos apoyar.

El pasado mes de marzo tuve la oportunidad de conocer los sistemas educativos de dos de los países europeos con un mayor prestigio: Estonia y Finlandia. En el caso de Finlandia, además, tuve el privilegio de que fuera la propia Ministra de Educación Li Andersson quien me explicara sus principales características y me acompañara por varios centros escolares del país. Debo reconocer que lo primero que percibí en todas las visitas que realizamos fue orgullo. Orgullo de pertenencia y orgullo por el trabajo que todos los días realizan. Andersson puso en valor ese sentimiento compartido, pero me señaló que era el fruto de un trabajo de medio siglo; cincuenta años en los que toda la sociedad, partidos políticos, profesorado y familias, habían trabajado alineados en pos de unos objetivos cuyos resultados son visibles hoy en día. Medio siglo después. Esa reflexión me sirve para subrayar el hecho de que cualquier cambio que queramos impulsar, además de que deberá contar con la complicidad de todos los actores que forman parte de nuestra sociedad, no tendrá un retorno inmediato como por desgracia solemos exigir hoy en día en casi todos los ámbitos de la vida. La educación requiere una apuesta continuada, un trabajo pedagógico firme y profundo, una permanente formación del profesorado... y paciencia. Los expertos en educación consideran que cualquier cambio pedagógico o metodológico exige unos 10 años de espera y análisis para poder valorarlo correctamente. Por suerte, además del excelente trabajo que realizan todos los días en nuestros centros escolares, también la experiencia y conocimiento de otros países nos enriquecen y orientan debidamente.



La internacionalización de nuestra educación es, de hecho, otro de los factores determinantes en nuestro permanente avance. Al igual que colaboramos entre diferentes Gobiernos, también los centros colaboran ya en el impulso de diversos proyectos pedagógicos. Lo que es más habitual en el ámbito universitario y en la Formación Profesional, también avanza en el ámbito escolar. Muchos centros escolares ya trabajan en coordinación con otras realidades, especialmente europeas. Las tecnologías nos ayudan a ello, aunque considero que es más un reto conceptual. Desde lo local, con unas bases educativo-culturales sólidas, resulta fundamental abrirnos a un ámbito a que nuestro alumnado deberá acostumbrarse. La realidad social y laboral que afrontarán nuestros estudiantes será notablemente diferente a la que nos tocó vivir a las generaciones precedentes. Vivimos en una sociedad globalizada, con sus ventajas y también con los problemas que puede provocar. Adecuémonos por tanto a una realidad que según parece, ha llegado para quedarse.


Sea con una mirada global o con un enfoque más propio, resulta evidente que el devenir de nuestra educación pasa en gran medida por la capacitación y formación de nuestro profesorado. Resulta inviable pensar en un avance educativo, si en él no incluimos las herramientas necesarias para que el profesorado pueda adaptarse a las nuevas realidades y exigencias. Más allá de que el nuevo profesorado que pasa a formar parte de nuestro sistema educativo ya posea los conocimientos necesarios, resulta fundamental fomentar una cultura de formación permanente que nos permita dar una respuesta adecuada a los cambios que, seguro, se van a ir produciendo a lo largo de los años. Esa necesidad cuelga de una premisa básica: será la administración, el Departamento de Educación, el que deberá dotar de los recursos necesarios a sus profesionales educativos.

Y no podrá abstraerse, de ningún modo, de esa responsabilidad. Pero también el profesorado deberá asumir esa formación permanente, como un elemento intrínseco a su función profesional. Tan solo la fusión de ambas premisas nos permitirá dar una respuesta óptima. Siendo eso así, queda patente que habrá pocas premisas tan importantes como el de la formación permanente a la hora de lograr la educación que queremos.

Uno este elemento con otra formación, vinculada con esta anterior que mencionaba, y que resulta igualmente determinante en esta estrategia de impulso educativo. La profesionalización de los equipos directivos nos permitirá disponer de centros escolares mejor gestionados, más autónomos, ligados a su entorno geográfico.

Al igual que la figura del docente, el cargo de director o directora de un centro educativo se merece un reconocimiento social que no siempre se produce. El liderazgo de una directora puede determinar, en buena medida, si el proyecto educativo de esa escuela es la correcta, o no. Además de acompañarle en una formación específica para gestionar su centro de la mejor manera posible —tanto en lo que se refiere a recursos materiales como a la gestión del equipo humano—, debemos conseguir que su jerarquía, que su liderazgo, redunde directamente en la obtención de los logros que nos marquemos en global, y que el centro haya identificado y marcado en su caso específico. En un sistema educativo general, cada centro es una realidad que es necesario gestionar con determinación y conocimiento. Factores como el entorno en el que se ubica, la trayectoria del centro, el perfil de su alumnado, la movilidad del profesorado, la mayor o menor implicación de las familias o la realidad cultural y lingüística en la que se encuentra.

Este último elemento, la realidad sociolingüística del centro escolar, debe ser un indicador que cobre un mayor protagonismo en los años venideros. En un sistema en el que el euskera sigue siendo su eje, las diferentes realidades que nos muestran nuestros barrios y municipios requerirán una flexibilidad pedagógica que permita alcanzar los objetivos que como sociedad nos hemos marcado. Obviamente, no es lo mismo estudiar en una localidad de la zona minera de Bizkaia o en un



municipio de Urdaibai. Aunque el conocimiento y uso del euskera ha avanzado mucho en las últimas décadas gracias en gran medida al sistema educativo, lo cierto es que su uso sigue siendo limitado en algunas zonas de nuestra geografía. Cada realidad debe ser analizada de manera individualizada y se le debe ofrecer una respuesta acorde a lo que requiere desde un punto de vista pedagógico. Según estudios y proyecciones, el euskera mantendrá su lento pero constante fortalecimiento, pero para ello tendremos que seguir activando políticas que fomenten su conocimiento y uso. Esa autonomía no significa, sin embargo, que nos resignemos a las diferentes realidades, sino todo lo contrario. Nos hemos marcado como objetivo que todo el alumnado de Euskadi alcance, como mínimo, un nivel B2 en las dos lenguas oficiales: cómo alcanzar ese nivel, a qué ritmo, con qué proceso formativo quedará bajo el criterio y la autonomía de gestión de cada uno de los centros escolares. Con la supervisión del Departamento de Educación y con el saber hacer de cada uno de los centros escolares ante las diferentes realidades de la que está compuesta nuestra sociedad. Pero en ese viaje no podemos, no debemos ir solos.

Haciendo un cálculo aproximado, un estudiante de Primaria o de la ESO pasa en torno al 15% de su vida en el centro escolar, un porcentaje menor del que seguramente pudiéramos pensar. En el caso del euskera, y en aquellas zonas menos vascoparlantes, eso significa que la mayor parte

de su tiempo el alumnado permanece alejado del euskera; que su relación con el euskera se limita únicamente al ámbito escolar. Y ahí es donde los ayuntamientos podrán jugar un papel relevante. No solo en relación al euskera, también con el resto de los proyectos educativos que promueva el centro escolar, los ayuntamientos deberán implicarse de manera más activa y decidida con el ámbito educativo. Aunque la competencia seguirá siendo del Gobierno Vasco, una mayor participación de los ayuntamientos redundará en beneficio directo de toda la comunidad: del alumnado, de las familias, de la calidad del servicio educativo y también de la convivencia. La administración más cercana deberá convertirse en un agente activo y directamente implicado, en asuntos tales como el proceso de matriculación, la coordinación tanto con el centro escolar como con el Departamento de Educación, o el diseño de actividades extraescolares vinculados a las actividades y proyectos que impulse el colegio. En definitiva, será una pieza clave para impulsar una comunidad educativa más amplia, mejor cohesionada, en beneficio directo de su alumnado y de las familias.

Porque nada hay más importante que nuestro alumnado. Cuando situamos al alumnado en el centro de todo el proceso, lo hacemos con el convencimiento de que la finalidad que persigue todo el sistema educativo empieza y acaba en ellos, en nuestra juventud. Las prioridades de los diferentes agentes educativos que participan en este gran proyecto quedan en un segundo plano. Tanto la administración como el profesorado y los profesionales de los centros escolares trabajamos diariamente con la intención de posibilitar una educación de garantía, con el convencimiento de que nuestro alumnado finalizará su etapa básica con los conocimientos y habilidades necesarios para poder continuar su formación con garantías. Buscamos formar a personas comprometidas, críticas y solidarias, y ahí ponemos todo nuestro empeño.

Estoy convencido de que, entre todos y todas, con la necesaria complicidad entre los agentes educativos, políticos y sociales, seremos capaces de acordar y blindar un sistema educativo actualizado y reforzado, al margen de futuros vaivenes. Será la mayor aportación que le podríamos hacer a nuestra sociedad. Euskadi ha demostrado sobradamente su compromiso por una educación de calidad, equitativa y solidaria. Ahora es el momento de construir los cimientos para las próximas generaciones, y no les podemos fallar.

Sin duda la educación es un reto de país, y vamos a por ello.



